

Euskara juridikoak 25 urte betetzen dituenengan. Gogoeta batzuk euskara juridikoaren garabidearen gainean

(25th anniversary of the Juridical Basque language.
Some considerations on its development)



ELOSEGI ALDASORO, Antton

Euskara Juridikoko irakaslea
Euskal Herriko Unibertsitatea
Manuel de Lardizabal 2
20018 Donostia
fvpelala@sd.ehu.es

Sarrera eguna: 2003.10.31
Onarpen eguna: 2004.05.10

BIBLID [1137-1951 (2004), 12; 71-85]

a

rtikulu honetan,
Zuzenbidearen munduan erabiltzen
den hizkera berezituak, euskara juri-
dikoak alegia, azken 25 urteotan
izan duen bilakaera aztertzen da:
hasierako urteetako arazo eta ere-
duak, mende laurden horretan zehar
eman dituen pausoak, eta etorkizu-
nari begira dauzkan erronkak.

Giltza hitzak: Euskara juri-
dikoak. Testu juridikoak. Itzulpengintza.

E

n el presente artículo
se estudian los pormenores de los
25 años de evolución del euskera
jurídico, desde los problemas e
incertidumbres iniciales, hasta los
firmes pasos que ha dado y los
retos que todavía le quedan por
alcanzar.

Palabras clave: Euskera
jurídico. Textos jurídicos.
Traducciones.

D

ans cet article on
étudie les détails des 25 ans
d'évolution du basque juridique,
depuis les problèmes et incertitudes
initiales jusqu'aux progrès certains
qu'il a fait et aux objectifs qu'il lui
reste à atteindre.

Mots clés: Basque
juridique. Textes juridiques.
Traductions.

1. Sarrera. 2. Noiz hasten da euskara juridikoa garatzen?: 2.1. Zer da euskara juridikoa? 2.2. Ahozko hizkera juridikoaz zer esan? 2.3. Testu juridikoak eta ez juridikoak. 2.4. Nolako testu juridikoak daude aurreko mendeetan? 2.5. XX. mendea, 1936-37ko ofizialtasuna eta ondorengo hutsunea. 3. **Duela 25 urte nola ekin zitzaion euskal testu juridikoak ekoizteari:** 3.1. Euskararen egoeraren zertzelada batzuk. 3.2. "Administrazioaren eragin biderkatzailea". 3.3. Itzultzaileak jartzen dira lanean. 3.4. Itzulpenaren pisua inon baino handiagoa da. 3.5. Testu juridikoetan ez dago garapen mailakaturik. 3.6. Hasierako testu juridikoen funtzioak. 4. **Hasierako euskara ereduak:** 4.1. Eredu ezberdinak sortzen dira. 4.2. Ondorengo bilakabidea. 5. **Lege-testuetako terminologiaren arazo bereziak:** 5.1. Adibide batzuk. 5.2. Iruzkina. 6. **25 urte eta gero zertan gauden euskara juridikoari dagokionez.**

1. Sarrera

Artikulu honen oinarria eta izateko arrazoia, 2002.ean Euskal Herriko Unibertsitateko Filologia sailean irakurri nuen doktore tesian (Elosegi, 2002) dago. Tesia, filologiakoa, edo hobeto, linguistikakoa da, eta bertan zuzenbideko hizkeraren hainbat alderdi jorratzen dira: soziolinguistika, historia, *corpus* linguistika, lexikologia, terminologia, itzulpengintza, eta gramatikari dagozkion morfologia zein sintaxia batez ere.

Ikerlan horretan, ohi denez, hainbat gauza aztertut, eta ondorio zehatzak ateratzeko moduan jarri nintzen, eta, ohi denez ere, beste mila alderdi somatzen hasi nintzen, eta hainbat ikuspegi zabaldu zitzaizkidan gogoeta modura.

Artikulu honetan, tesiaren aurkezpen eta laburpen gogaikarri-trinkoa egiten saiatu gabe, hartan oinarrituta, handik sortutako gogoeta batzuk plazaratu nahi nituzke, hizkera honen historiari, aspaldikotik eta atzo goizekotik, nire gogorako ateratako irakaspen batzuk eginkizun hauetan bidaide diren legelari euskaldunekin partekatzeko asmoz.

Horrela, hizkera juridikoa zeri deitzen diogun argitu ondoren, hizkera horrek euskaraz historian izan dituen agerpenen berri iruzkindua ematen dut, betiere oraingo euskara juridikoaren oinarri-izaera kontuan hartuaz.

Aurrekoa oso labur burutu ondoren, autobiografiatik ere baduen puntu batean, orain 25 urte hasitako aldi hartako zertzelada batzuk marrazten saiatu naiz, orduko itzultzaileon ekarpenak eta eraman beharrak kontatuz. Hurrengoan, hirugarren puntuan, hasierako bal-

dintza haien ezinbesteko ondorio izan ziren euskara-eredu desberdinen gorabehera batzuk ematen ditut, eta laugarrenean aurrekoari guztiz loturik dagoen terminologiaren zenbait arazo bereziren deskribapena egiten dut, aurrekoan bezala, adibideen laguntzaz.

Bosgarren puntuan, tesian landutako ondorio batzuk eta hartarako egokitzat jo ez nituen hainbat gogoeta edo burutazio plazaratzen ditut.

2. Noiz hasten da euskara juridikoa garatzen?

2.1. Zer da euskara juridikoa?

Lehenik jakin beharko genuke zeri esaten zaion hizkera juridikoa eta zein diren hizkera horren ezaugarriak. Tesian landutako ikuspegiak, eskolak eta gainerakoak alde batera utzita, esan dezadan hizkera juridikoa, hizkuntza baten barruan zuzenbidearen munduan egiten diren erabilera berezituak osatzen dutela, eta, hortaz, hizkuntza orokorraren ezaugarri berak dituela alderdi gehien-gehienetan. Mundu juridikoan historia luzea egin duten hizkuntza batzuetan aurkitzen ditugu halako berezitasun morfologikoak edo sintaktikoak, baina, oro har, lexiko bereziaren erabileran bilatu behar dugu horrelako hizkeren berezitasuna.

Baina praktikan egiten den bidea ez da lexiko berezia sumatzetik testu baten juridikotasuna ebaztera, baizik eta, testu baten sortzailea, ingurua, gaia, helburua mundu juridikokoak direla ohartzetik, testu hori juridikotzat kalifikatzera.

Puntu honetan, beraz, irizpide hori harturik, euskal testuen artean juridikotzat jo daitezkeenak zein diren gain giroki azaltzen saiatuko naiz, deskribapen orokor eta xume batzuk eginez, betiere begien aurrean edukirik gaurko egunean dabilen hizkera.

2.2. Ahozko hizkera juridikoaz zer esan?

Euskal kulturaren munduan aparteko arreta eman ohi zaio ahozko jardunari, eta ez naiz hasiko ahozkoaren altxorra gutxiesten. Baina, hasieratik, tesiaren gaia oso modu pragmatikoan mugatu nahi izan dut: gaurko egunean zuzenbidean eta zuzenbideari buruz aritzeko balio duen hizkeraren aurrekariak interesatzen zaizkit. Izan ere, ezaguturik alde batetik Satrustegik edo Urrutiak, besteak beste, egindako ikerkuntzen emaitzak, eta, beste aldetik, orain dabilen lexiko juridikoa, ondorioztatu daiteke oso bakanak direla ahozkotik bakarrik jasotako hitzak gaurko eguneko errealtate juridikoak izendatzeko erabiltzen ditugun artean. Hortaz, guztiz irekita egonik ere, ez dago esperantza handirik inoiz gure terminologia juridi-

koaren zuloak estaltzeko hitz-jarioa etorriko zaigunik oraingo edo antzinako euskaldun agrafo jakintsu baten ahozko ekarpenetik.

2.3. Testu juridikoak eta ez juridikoak

Hortaz, hizkera juridikoaren iturri ia eskusibotzat daukat idatzizkoa, hizkuntza "normaletan" egiten den bezalaxe. Hizkera juridikoa, beraz, eta Pernandoren egien itxura badu ere, testu juridikotakoa izango da, baina testu juridikoaren definizio zorrotza ematen saiatu ordez, ohartarazi behar dut denbora aurrera joan ahala baldintza gogorragoak jarri dizkiodala testu bati izenondo hori merezi izateko. Argi dago XVII. mendean ezin baztertutkotzat jotzen duguna ez genukeela kontuan hartuko egun. Era berean, esan behar da hizkera eta terminologia juridikoaren iturriak ez daudela testu juridikoetan bakarrik, zerren hizkera juridikoak hiztegi orokorrean dauka elikatoki nagusia, eta, gainera, zehazki juridikoak ez diren testu erlijioso-moraletako kontzeptualizazio asko juridikoa baita: *legea, manamendua, bekakua, hobena, judizioa, kondena...*

2.4. Nolako testu juridikoak daude aurreko mendeetan?

Euskara ez da inoiz izan Zuzenbidearen hizkuntza¹. Egia da, baina ñabardurak behar ditu. Izan ere, euskara ez da inoiz izan ez legearen, ez epaiketen, ez partikularren arteko eragiketa juridikoen hizkuntza idatzi normala, baina salbuespenak agertzen dira han-hemen.

Lerro labur hauetan, testu juridikoen historia gabe, oso ikuspegi pertsonal batetik ikusitako lerro nagusiak marraztu nahi nituzke, ez-testutik testu garatura, XV. mendetik XIX.era egiten den ibilbidea, eta ondorengo luzapenak.

XVI. mende arte, balio juridikoko hitzak agertzen dira, baina ez euskarazko testuetan, betiere salbuesten badiugu 1412an Martin de San Martinek eta bere lehengusu Machin de Çaluak, nafar handiek elkarri idatzitako gutun-zatitxoak.

XVI. mendean lekukotasunak asko ugartzen dira, baina ez-testuaren erresuman jarraitzen dugu gehienetan, ez baitira euskaraz idatzitako testuak, baizik, gehienetan, euskaraz ahoz esandako esaldien transkripzioak, latinez zein erdaraz idatzitako testuetan.

XVII. mendeak, euskararen erabilera administratibo ofizialaren estraineko aleak erakusten dizkigu. Norbaiten utzikariari eskertu behar diogu data horren efektibitatea 1616-17-tik 1680ra arte atzeratu behar izatea. Izan ere, Zuberoako eta Erronkariko agintarien artean euskaraz izandako gutuneria administratiboak ilunpean² dirau oraindik, Londresko Sotheby's etxeko enkantean³ behar zuenak ez zuelako behar zen dirua eskaini.

1616-17ko testuak horiek aztertzeke para-da etortzen zaigun bitartean, 1680 ipini behar da testu administratibo ezagunen jaiotzte bezala. Urte horretan, hiru bider Lapurdiko Urruñako herriko etxetik Hondarribikoari idazten diote beren arteko auzi batzuk konpontze aldera. Data horretatik aitzina, badaude udalen arteko euskarazko gutun ofizialen aleak, eten handirik gabe, XX. mendera arte. Ez dira asko, hala ere, eta ia beti, salbuespen gutxirekin, Iparraldetik Hegoaldera idatzitakoa ezagutzen dugu, baina ez erantzuna.

XVIII. mendea, gure maila apalean, aberatsa da testu juridikoei dagokienez. Hainbat motatakoak, publikoak eta pribatuak, udal gutuneria, bilkura-aktak, notarioaren aurreko eskriturak... agertzen dira euskaraturik. Bi gailur sinboliko aipatzekotan, bata Eibarko Udalak 1745-1748 urtealdian euskaraturiko udal-ordenantza izango litzateke; dakigularik, euskarazko lehen araua historia osoan. Bestea, Iraultza Frantsesaren hasierako urteetan, Parisko politikari jarraiari, Iparraldean euskarari tokirik handiena eman zioten garaian itzulitako testu politiko-juridikoen multzoa.

Mende honetan eta hurrengoan, udalen arteko gutuneria ofiziala aipatzerakoan, ez da ahaztu behar ohiko hizkuntza (frantsesa edo gaztelania) alde batera utzirik, salbuespen modura erabiltzen zela euskara, mugaz beste aldekoekin idatziz ulertu ahal izateko.

Beste alor askotan bezala, Larramendik iraultzatxoa dakar mundu honetara. Haren irakaspenen eta Hiztegiaren eraginez, goi mailako erlazio idatzietan ere euskarak tokia izan zezakeela hasten dira batzuk pentsatzen, eta XIX. mendeko Lore Jokoetan, erretrika eta kutsu juridikoz beteriko formalismoak Larramendiren erako euskaraz egiten dira.

XIX. mendea, argi-iluna dela esan daiteke. Alde batetik, itzala da XVIII. mendearen bukaera

1. Gai honetan interesatuek badakite ezinbestekoa dela Imanol Trebiñoren *Administrazio zibileko testu historikoak*, berak horrela mugatutako testu juridiko-administratibo baten bilduma, testu askoren faksimilez hornituta.
2. Ezagutzen dugun hasierako orria, guztiz tentagarria da. Honela dio hasieran: "Jauna ceren çuc ezpaituçu frainceaz lengoageric endelgatzen, eta nic ezpaitaquit escribatzen espagnolez, haren causaz heuscaraz escribaturen dut guthun haur, Esperançaz plazer harturen duzula goure lengoage naturalaz...".
3. 1995eko abenduaren 1ean egin zen enkante hori (*Euskaldunon Egunkaria*, 1995/12/02).

aldera dagoen garapen ikusgarriak ez duela jarraipenik Iparraldean. Bat-batekoa ez bada ere, euskararen erabilera administratiboa ezkutatuz doa Frantziako errepublikan, eta Hegoaldeko susperraldia ez da dirdiratsua. Han-hemen herri-ordenantza batzuk, akta batzuk, gutun administratibo batzuk, zenbait kontratu, Larramendiren eraginezko euskara Lore Jokoetan...

XIX. mendeak ikusten du euskararen erabilera sinbolikoaren jaiotza. Bizkaiko batzarretan hainbat urtez, ekintza protokolario batzuetan euskara dago, baina ez da ezer egiten euskara izan dadin bileretako lan-hizkuntza.

Hogeigarrenaren atarian, esan daiteke azken mendea ez dela emankorregia izan euskal testu juridikoei dagokionez, eta XVIII.ean Iparraldean hasitako diskurtso juridikoak ez duela garapenik Hegoaldean, guztiz bestelakoak baitira.

2.5. XX. mendea, 1936-37ko ofizialtasuna eta ondorengo hutsunea

XX. mendean, edo zehazkiago, 1890etik aurrera, ideia politiko nazionalista berriei bate-ara, diputazioek, udalek, eta beste erakunde publiko batzuek arau, ibiltorri, bando eta beste testu administratiboak noizbehinka erdaraz eta euskaraz argitaratzen hasten dira. 1918 urtearen inguruan, eta hutsune baten ondoren 1931tik aurrera, ageri dira halako "loralditxoak" euskara juridikozko testuen ekoizpenean.

Baina euskararen erabilera juridikoa ez da soilik erakunde publikoen gauza; izan ere, elkarte batzuk –alderdiak, sindikatuak, kultur elkarteak, apaiz-elkarteak– hasten dira beren estatutuak euskaratzen. Eta garai honetako da beste jenero juridikoaren jaiotza: zuzenbideari buruzko gogoeta eta dibulgazioa, ikerkuntzaren izena ematea gehiegizkoa izango litzatekeenez. Eta ezin aipatu gabe utzi 1926 urtean egin zen, nahiz eta 1978 arte argitaratu ez, testu juridiko nagusi baten itzulpena: 1924an Hipolito Larrakoetxeak ondutako *Eleizaren Araudia / Codex Juris Canonici*.

Nola hala laburtuz eman dugun historia horrekin iristen da euskara juridikoa bere lehen ofizialtasun aldira, alegia, 1936ko urrian estreinatu eta 1937ko ekainean amaitzen den haurdunaldi baten luzeko garaira, zeinetan euskara, lehen aldiz historian, ofizialtasunez janzten den, eta, formalki bederen, zuzenbidearen hizkuntza bihurtzen den.

Testu juridikoei gagozkielarik, bederatzi hilabete horietan irauten duen *Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa / Diario oficial del País Vasco*, garai hartan ekoiztutako arau guztien bilduma, ordu arteko testu juridikoen bildumarik garrantzitsuen bilakatzen da, eta bera bakarrik,

aurreko guztien adinakoa kantitatez, eta haiek baino askoz gehiago teknikotasunari dagokionez. Izan ere, bertan irakur daitezke Euskadiko Estatutuaren eta Estatuko legeren batez gainera, Eusko Jaurlaritzako "oroaginduak", aginduak, epaitegi-tako ediktoak, udaletako aktak, iragarriak eta beste hainbat testu juridiko-administratibo.

Baina, era berean, gogoratu beharrekoa da testu haiek guztiak erdaraz idatzi eta itzulitakoak izan zirela, eta argitaratuak izan arren, ezin dugula jakin nolako erabilera izan zuten. Frogatu ezin den erabilera horri buruz, dena den, hipotesi zentzukotzat eman daiteke oso jende gutxi irakurri zituela, eta are gutxiagok eman zietela euskal testu haiei testu juridiko arruntek ohi duten erabilera praktikoa. Hortaz, esan daiteke balio sinboliko handiko testu-bilduma dugula, baina hizkera juridikoaz den bezainbatean, eragin gutxiak izan zirela bere garaian, 1980ko hamarkadan bertako hainbat hitz eta esapide berpiztu nahi izan bazen ere.

Ondorengo hutsunea erabatekoa izan zen: 40 urtez testu-jenero hori desagertuta egon zen; 1939-1978 aldian ekoitzi ziren testu juridikoak teorikoak edo dibulgaziozkoak dira, elkarteren bateko estatutuak eta han-hemen euskaraz egindako kontraturen bat izan ezik. Izan ere, ofizialtasunik ezean, ez du zentzurik testu juridikoak idaztea. Esan daiteke, hortaz, lau hamarkada horietan ez dagoela aurrerapenik euskara juridikoan, 60ko hamarralditik aurrera hainbat arlotako euskarak loraldi bat ezagutzen duen arren.

Etenaldi nabarmen hori 1978 urtean amaitzen da; urte hartan finka daiteke oraingo hizkera juridikoaren garapenaren abiapuntua: ofizialtasuna erabatekoa ez bazen ere, estatus para-ofiziala eskuratu baitzuen euskarak Eusko Kontseilu Nagusiko Aldizkaria (EKNAO) kaleratu zenean. Aldizkari horren kaleratzean kokatzen dugu hizkera juridikoaren garapenaren abiapuntua, hortik aurrera etengabeko hedapena eta hazkundera izan duelako. Haren jarraitzaile izan zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria (EHAA) etenik gabe iristen zaigu gaurko egunera arte. Zilarrezko etzeiak betezen dira, beraz, 2003 urte honetan.

3. Duela 25 urte nola ekin zitzaion euskal testu juridikoak ekoizteari

3.1. Euskararen egoeraren zertzelada batzuk

Euskara batuaren oinarriak 1968 ezkeror ezarrita zeuden, baina haien aplikazioa, doi-doi abiatzen, eztabaida latzen erdian. Araututa zeuden alderdiak, ortografia (hiztegi-rik gabe), deklina-

bidea eta konjugazioa ziren, ez askoz gehiago. Lexikoari dagokionez, zerrenda xume batzuk berririk ez zeuden erabakita. Euskara batuan idatzi nahi zuenak, autodidakta, ausarta eta irudimen handikoa behar zuen, Euskaltzaindiako arauaren letraren atzeko izpiritua ere hautemateko, eta arautu gabeko alderdietan asmatzeko. Artean ez zeuden orain eskura ditugun gramatikak eta hiztegi batua.

Arauetan erbal bageunden ez zen araugile-en nagikeriaz, euskararen barne azterketa oraindik alderdi askotan minimoetara iristen ez zelako baizik. Hizkera berezituarekin horrenbesteko zerikusia duen lexikoa, lexiko orokorra esan nahi dut, behar bezala aztertu gabe baitzegoen. Geroakoak dira OEH, LEF batzordearen lanak eta beste ikerlan asko, hainbat puntutan segurtasuna eman digutenak, eta pentsatzen ez genuen aberastasun lexikoak eta erregularitasun gramatikalak azalera-tzen dituztenak. Beste aldetik, euskararen hizkerak, maila orokorreko erregistroak, egon bazeuden, baina haien deskribapenak, eta, oro har, haiei buruzko ezagutza erreflexiboa guztiz falta ziren. Inork gutxi zekien, bestalde, ziurtasunez zer ziren terminologia, terminoa, hizkera berezia eta horrelako berrikeriak.

Bestalde, Hegoaldean urte haietan hasten da euskararen estatus juridikoa pixkanaka finkatzen: 1979ko abendukoa da Konstituzioak dakarren hizkuntzei buruzko deklarazio orokorra, eta 1980ko bukaerakoa ere Estatutuaren 6. artikulua, baina 1982 arte ez da euskararen legerik egongo, eta hori EAEn, Nafarroan gauzak askoz mantsoago baitoaz. Iparraldean, jakina denez, euskarak ez du estatusik, eta XIX. mendera arte *de facto* izandako tolerantzia erabat galdu da.

Euskara, bere lau hamarraldiko garai ilunenetik atera berria da. Egia da, berrindartua maila ideologikoan, inoiz ez baitu garai horretan adinako ospea izan, baina guztiz ahulduta soziolinguistikoki, minorizatuta, odol-hustuta.

60ko hamarralditik aurrera garatutako ikas-toletan euskaraz irakurtzen ikasi dutenak oso gazteak dira; beste euskaldunen artean, analfabetismoa da lege, ia bakarra. Frankismoaren 40 urteetan jaiotakoen artean, gutxi batzuek bakarrik dakite irakurtzen, edo komentutik pasatakoek edo autodidaktek. Esan daiteke nekez aurki zitekeela inor irakurtzeko orduan euskaraz hobeto moldatuko zena erdaraz baino. Zer esanik ez, gai juridiko xume bat euskaraz normaltasun-itxuraz tratatzeko gai zirenak ez ziren dozena erdira iritsiko.

Jenderik euskaldunena, bestalde, administrazio-gune batean sartzen zenetik, bere erdararik dotoreena egiten saiatzen zen. Euskara guztiz tokiz kanpo zegoen mundu juridiko-administrati-boan.

3.2. "Administrazioaren eragin biderkatzailea"

Euskara lantzen zutenen artean, orain hitsaren aldean, geroa zegoen gogoan; etorkizuneko Euskal Herri euskalduna, zeinetan euskarak erdararen tokia hartuko baitzuen. Diglosia gainditzeko teoriaren arabera, hizkuntza apalduak berreskuratu egin behar zituen erabilera-espazioak: eskola, hedabideak, eta administrazioak batez ere. Denek amesten zuten Euskal Herri bat non administrazioa eta legea euskaraz izango baitziren. Esperantza handiak zeuden administrazioa eta lege-mundua euskaldunduz gero, horrek bide zuen prestigioa zela medio eragin biderkatzailea izango zuelakoan. "Administrazioa irabaziz gero, euskararen borroka irabazita dago" esaldiak laburtzen zuen garaiko hainbaten pentsaera. Eta agintari politiko zenbaiten estraineko neurria izan zen administrazioan euskaraz egingo zuen norbait jartzea.

3.3. Itzultzaileak jartzen dira lanean

Hasierako neurrietan dago, bada, administrazioa euskalduntzeko bideetan abiatzea. Abiapuntua, erdara hutsez dabilen sistema juridikoa eta administrazioa. Mundu hori euskaldun bihurtzeko, bide bakarra ikusten da nonahi: erdaraz dagoena euskaratzea; itzultzea, beraz.

Horrela, itzultzen esperientzia zeukakeen edozein aurki zitekeen lanpostu baten jabe, administrazio jakin bat (udal, diputazio, Jaurilaritzako bulego edo aldizkari) euskaldun bihurtzeko eginkizunarekin. Jakina, ez zegoen horrelako langintzan eskarmentu izpirik zeukan jenderik, eta esku bateko hatzez kontu zitezkeen aise zuzenbidea edo administrazioa zer zen zekiten itzultzaileak.

Horrela, bada, hasierako urte haietan, 1978tik aitzina, itzultzaile batzuen esku geratzen da hizkera juridiko-administrati-ba sortzeko eta garatzeko eginkizuna. Esan daiteke urte askotan euskaraz idatzitako mota horretako testuak ehuneko ehunetik hurbil zirela itzuliak; denak gaztelanatik, noski.

Gainera, espezialitate horretan esperientzia izateko aukerarik ezari gehitu behar zaio ia batere eredurik ez edukitzea, eta baliabideen urritasuna. Kontuan eduki behar da orain ezagutzen ditugun hainbat testu historiko artean ezezagun zirela, eta Iraultza Frantseseko garaikoak edo gerra aurreko Egunerokoa argitaraturik bazeuden ere, inork gutxi ezagutzen zituela, eta ezagutzen bazituen, ez zituela kontuan hartzen.

Itzultzaileak, horretaz, erabil zitzakeen tresna lagungarriak, hiztegiak gehienbat, egungo ikuspegitik barregarri iruditzen zaizkigu: Azkueren hiztegia, 1905ekoa, Placido Mugicarena, Luis Mari Mujikarena, Euskal Hiztegi Modernoa... ezer espezializaturik ez, noski.

Testu juridikoen ekoizleak itzultzaileak dira hasieran, salbuespenik gabe, eta administrazioetako itzultzaile gisa dihardute, norbere bulegoan, gehienetan bakarrik edo bizpahiru lankideren laguntzaz. Euskararen normatibizazioa deskribatu dugun puntuan zegoelarik, pentsaezinekoea da hizkera juridiko-administrazioaren berezitasunak landu-araututa egotea: ez dago autoritatez jantzi-riko arauemailerik, nahiz eta, urte gutxiren buruan, itzultzaile gehienak neurri batean edo bestean bi koordinazio-guneren inguruan bildurik agertu: HAAE zen bat, eta UZEI bestea.

3.4. Itzulpenaren pisua inon baino handiagoa da

Esan dugu hasieran euskal testu juridikoa eta testu itzulia gauza bera zirela, salbuespenik gabe euskarazko arauak, kontratuak edo epaiak (*rara avis*) itzulpen bidez sortuak zirela, eta hori, uste dugu, beste arloetan baino modu erabatekoagoan, jakina baita nolako pisu itzela izan duen itzulpenak testu espezializatu gehienen abiaburuan. Baina zuzenbide-testuekin gertatzen da itzuli izate hori argitaratze moduraino eramaten dela, ia salbuespenik gabe testu juridikoak bi zutabetan inprimatzen baitira. Horrek dakar, kontuan izanda ez dagoela euskal testuaren irakurketan erdarazkoarenean baino trebeago izango den inor, euskaltzale saiatuena ere, zutabez aldatzen dela. Espainierazkoa ez bazen lehen aukera ere, denek bukatzen dute erdarazkoa irakurtzen eta erabiltzen. Horrek dakar beste edozein testu motatan baino areago euskal zutabeak gehienetan ez betetzea testu juridiko bati egozten zaion funtzioa, aurrerago iruzkinduko dugun bezala.

3.5. Testu juridikoetan ez dago garapen mailakaturik

Ohartaraztekoa da zuzenbide-hizkeraren genesian agertzen den zertzelada bat, beste hizkera gehienetatik bereizten duena: zuzenbide-testuak produzitzea erabaki politiko-juridiko batzuen baitan dago, eta zer eta noiz itzuli behar den erabakitzerakoan ezin zaio jaramonik egin hizkeraren garapen mailari edo testuaren zailtasunari. Hobeto uler daiteke berezitasun hori, beste espezialitate-hizkera askoren sorrera eta bilakabidea hezkuntzarekin loturik dagoela ohartzen bagara. Horrela, matematikako hizkera edo geografiakoa, gorabehera askorekin, noski, baina oro har, errazetik zailera, sinpletik konplexura igaro dira, euskarazko hezkuntzaren bidetik. Pentsa ezina zen, eta inork ez zuen horrelakorik pentsatu, hasiera batean testu espezializatu tekniko bat euskaraztea, demagun matematikakoa. Zuzenbidean, ordea, hala 1936an nola 1978an, gauetik goizera itzultzaile batzuei agintzen zaie gaztelaniaz zeuden arau batzuk euskaraz jartzeko, kontuan izan gabe zein izan zitekeen testu horien zailtasun edo teknikotasunaren maila.

3.6. Hasierako testu juridikoen funtzioak

Hasierako testu juridikoen zergatiko baka-rra argi dago: erabaki politiko bat dago euskarak —ofiziala denez— gaztelaniaren parean agertu behar duela agintzen duena. Ez dago batere garbi, ordea, zertarako edo norentzat diren testu horiek.

Deskribatutako egoera soziolinguistikoa kontuan harturik, nekez aurkituko zen garai hartan euskaldun bakar bat ere maila horretako testu idatzi bat euskaraz erdaraz baino hobeto ulertuko zuenik, eta hori, oro har, gauza jakina zen itzultzaileen artean. Argi dago, hortaz, ezin zitekeela itzuli euskaldunek legea hobeto uler zezaten euskaraz erdaraz baino.

Gaia ez zen praktika hutsean ebatzi, horri buruzko gogoeta idatziak bai baitaude. 1984an idatzitako artikulua batzuetan, EHAAko itzulpenen arduradun nagusietako batek, Josu Oregik (1984:97), honela baitzioen:

“ (...) gure lana gaurregun eta bertatik bertarako ondorioei bagagozkio ia alperrikako denaz jabetuta gaude; gerora begira ari gara beraz, gure agintariek bere manuak euskaraz eman ahal ditzateneko bidearen zegunak jartzten.”

Mendiguren Bereziartuk liburu bereko beste artikulua batean (1984:126) bere zalantzak plazaratzen ditu, ea garaiko itzultzaile (juridikoen) lanak ezertarako balio ote duen, eta batzuek aipatzen dituzten “lekukotasun balio hutsa” eta “pixkanaka eragin soziala izatea”, une horretan balio komunikatibo normalik ez izatearen seinale ote diren galdetuz.

Argi geratzen da ez zela funtzio komunikatibo arrunta, funtzio hori euskal testuak, makulu gisa, alboan zeraman erdal testuak betetzen baitzuen. Irakurtzen zena, kasuan aplikatzen zena, ez zen euskal bertsioa, espainierazkoa baizik. Hori horrela, bi funtzio nagusi betetzen zituen euskal testuak, sinbolikoa bata, ezinbestean zuena, koofizialtasun berriaren adierazpena baitzen euskaratoki ofizial guztietan agertzea, eta hizkuntzari berari begira bestea, formatiboa. Formatiboa hizkuntzaren beraren garapenerako, eta formatiboa irakurlearentzako: etorkizuneko irakurleek ulertu beharko dute. Beste kontua da bigarren hau ongi betetzen ote zen.

4. Hasierako euskara-ereduak

4.1. Eredu ezberdinak sortzen dira

Aurreko puntuan deskribatu ditugun baldintzetan, hala euskarari osotasunean, nola euskara juridikoari eragiten ziotenetan, mirakuluzkoa izan-

go litzateke hizkera juridiko heldua eta bateratua hasieratik sortzea. Ezinbestean, itzultzaile bakoitzak bere aldetik jotzen duenez, norberaren aurreiritzi lexiko, sintaktiko eta estilistikoek hizkera-eredu bat hautatzera eta garatzera bultzatzen dute. Nahitaez, behar lexiko eta terminologikoei norberaren irizpide eta aurreirizpideen arabera erantzuten zaie.

Aukera desberdin horien adibideak EKNAOn bertan aurki daitezke. Ondoren azertuko ditugu eredu horien paradigma izan daitezkeen bi testu, bata EKNAOn eta bestea EHAAr argitaratuak. Interesgarri deritzot horiek erakusteari, urte askotan zuzenbide-testuetan –eta ez bakarrik zuzenbidezkoetan– izan zen dikotomiaren adierazgarri direlako.

Eredu horien deskribapena ez da inoiz xehetasunez egin, eta eredu bera zertan datzan ere zail da definitzen. Eredu horien berri ematen duten idatziak ere ez dira ugari⁴; agian Berasategik (1989:38-39) egiten duen deskribapen xumea da interesgarriena.

Eginkizun horretan saiatu gabe, eta hasierako eredu haien ezaugarriei jabetzeko baliagarri izan daitezkeelakoan, nire tesigintzan erabili ditudan bi testu hautatu ditut. Hona bi testuok nire iruzkinean –alde batera utziko ditut garai hartan arautu gabe izatearen ondoriozko aldaera ortografikoak eta bestelakoak– jarraiturik:

A ereduko testua

LURRALDE ADMINISTRAZIOAREN MINISTERITZA

1.111/1979ko maiatzaren 10eko Errege Dekretoa, zeinaren bidez erregulatzen baita Udaleko eginkizunetan espainol hizkuntza desberdinen enplegua

(...)

Behar hori are eta nabarmenagoa da Gorporazio Lokalen egitateetan, izan ere lehen mailako zereginetan aritu behar dutelako eta jite publikozko organo eta Erakundeak direlako, probintziako edo munizipio-ko bizilagun guztiek aktibitate honetan parte hartzea segurtatu behar baitute.

ERABAKITZEN DUT:

Lehen artikulua.– Erakunde Lokaleak beren aktuzioetan balia daitezke ama hizkuntzaz batera Estatuko hizkuntza komun eta ofizialaz, Errege Dekreto honetan ematen diren arauen arabera.

Bigarren artikulua. – Gaztelaniaz baliatuko da ondoko aktuzioetan:

a) Agintari eta Estatuko Erakundeei, Auzitegi eta Tribunalei, berdin erreklutamendu eta errenplazoei dagozkienetan, bi hizkuntzaren jabe ez diren komunitateko agintari eta Erakunde ofizialei zuzenduko zaizkien komunikapen, notifikapen eta, oro har, beroiei zuzendutako era guztitako idazkietan.
b) “Estatuko Aldizkari Ofizialean” argitaratuko diren iragarki, agindu eta erabaki guztietan.

Eusko Kontseilu Nagusiaren Aldizkari Ofiziala
79/10/29. 29 zk.

Iruzkinak

Itzulpen-irizpideari dagokionez, oso nabarmena da terminotzat jotako hitz eta unitate lexikoak direla testu itzuliaren gunea; horien inguruan antolatzen da testuaren osotasuna; ia zalantzarik gabe igar daiteke erdal testuan terminoak non dauden, eta zein diren:

errege-dekreto, aktibitate, tribunal, munizipio, hizkuntza komun, aktuazio, komunikapen, notifikapen, erakunde lokal(e), erakunde ofizial...

Termino iriztitakoak euskarazko terminoz itzuli nahi izateak dakar mailegutza eta kalkoaren agerpen ugaria, ikusitako adibideetan nabari denez, eta baliabide morfologikoen erabilera urri samarra (aurrekoaren ondorio). Urritasun horretan, ohargarria da nominalizazio-atzizkien (-pen,) eta beste zenbaiten erabilera ez ohikoa:

komunikapen, notifikapen, ministeritza

Adibide-testua laburra bada ere, bertan atzeman daiteke hitz-hurrenkera nahiko zaila, eta garai hartan boladan egon zen klasikoaren egitura batzuk berreskuratzeko ahalegina, XX. mendearen hasierako arau zorrotzetatik ihesi, bitxikerietan erortzeko arriskua baztertu gabe:

espainol hizkuntza, “dekretoa, zeinaren bidez...”

Itzulpen-irizpideari buruz, lehen esandako irizpide “terminologikoen” barruan, itzulpena zehatza eta lotua da: ez da ezer utzi nahi baliokide zehatzik gabe, eta gertutik jarraitzen zaio sorburu testuari.

Testu itzuli horien irakurgarritasunari buruz, aski subjektiboa izateko arriskua nire gain harturik, esan daiteke garaiko ustezko irakurleentzako –Hegoaldekoak izanik denok genekien, euskaraz baino hobeto, gaztelaniaz irakurtzen– ulergarria izateko gogoak ez zuela erabat huts egiten.

4. Kontuan hartzekoak dira, halaber, Sarriegik (1985:16-17) *Senez* aldizkarian idatzitakoa, eta UZEIren *Zuzenbide Hiztegia*-ren Hitzaurre Orokorrean (25. or.) ukapenaren bidetik esaten dena; hau da, ez zela kontuan hartuko EHAAko itzulpenetako terminologia, ez zegoelako modu organiko eta sistemati-koan eratua, eta, oro har, aldizkari hartako eredu arbuatzen delako.

“EUSKAL-IRRATI TELEBISTA”
HERRI-ERAKUNDEA SORTZEZKO EPAILAREN
20KO 5/1982 LEGEA
Lehenengo Atalburua “Euskal irrati-telebista” herri-
erakundearen zer dena

1 Atala

1.-Lege honen gai diren irrati-telebistazko zerbitzuen jabetzadun denez Autonomia-Elkarteari dagozkion egitekoak, “Euskal Irrati-Telebista” Herri-Erakundearen bidez egiteratuko dira.

2.-“Euskal Irrati-Telebista” Herri-Erakundea berenezko lege-nortasunaren jabe da, lege honetan eta hau osabideratu dezaten agintaruetango agintzak ditu jaupide, Autonomia-Elkarteari erresumaren jabetzapeko telebista-irrapide baten artezko eraentza eman diezaion Legeak bakoitzean agindu dezanaren eta uhin-sarritasunak eta irrada-indarrak izendatzeari darizkion eginbehar eta eskubideen kaltetan gabe.

3.-Besteekingo lege-alorreko harremanetan, ondareez jabetzeko eta akurapenak egiteko Merkataritza eta Herrialorreko Legeen menpe egongo da, Lege honetan oharmandako salbuespenez besterik gabe eta, nolanahi ere, egintza bereizgarriei eta Itunebidezko eta/edo Itune-bideaz besteko erantzukizunekiko jaupideei buruzkoetan inolako salbuespenik ez dagoela.

Iruzkina

Eredu honetan ere, terminoek itzultzailearen interesgunea hartzen dute, baina hemen, terminoak bere hartan eman ordez, haien esanahiaz jabetzeko ahalegin handiagoa dago⁵, terminoaren esanahia interpretatzeko eta mailegutzara jo gabe emateko. Hortaz, lexikoari dagokionez, euskararen baliabideak erabiltzeko berariazko asmoa dago, eta ondorioz, mailegutzatik ahalik eta gehien ihes egiteko saioa.

Ahalegin horretan, morfologiaren bideak sakon korritzen dira, elkarketaren eta eratorpenaren ustiaketa “erabatekora” iritsiaz. Esan nahi baita, terminoen baliokideak eratzerakoan eratorpena eta elkarketa erruz erabiltzen dira, hainbat kasutan tradizio eskaseko moldeak erabiliaz, eta maiz, birdeklinaketaren eta berrelkarketaren kasuetan bezala, ulermen zaileko unitate lexikoak sortuz:

sortzezko, agintaruetango, besteekingo, erantzukizunekiko, herri-erakunde, lege-nortasun, osabideratu, jaupide, jabetzapeko, telebista-irrapide, uhin-sarritasun, irrada-indar, lege-alor, oharteman, itunebide

Hitz-ordenari eta diskurtso-antolaketa-ri gagozkiela, nekez ezkon daitezkeen bi “printzipio-

ri” eusten zaie itzulpen horietan: alde batetik, sorburu-testuaren puntuazioa bera gorde nahi da⁶ —eta jakina da nolako esaldi korapilatsuak eta hitz-pilaketak egoten diren erdarazko testu juridikoetan—, eta, bestetik, Altuberen “arauen” irakurketarik zurrunean: galdegaiaren legeak, kosta ala kosta, bete egiten dira, aditzak azkenean paratuaz, edozein luzeratako osagarri konplexuak tartean badira ere.

Laburbilduz, esan daiteke oso testu landuak direla, zehaztasuna eta nolabaiteko jatorrasuna daudela jomugan, azken tasun hori, ez tradizioan eta ohikotasunean, baizik eta beste jokabide batzuen ukapenean oinarrituz. Horrela, testu “garbiak”, maileguei dagokienez, zurrunk eta ulergaitzak oso maiz aurkitu zituen aldizkari ofizialaren euskal irakurleak.

4.2. Ondorengo bilakabidea

Tesian aztertutako korpusean agertzen denez, HAEEn hasierako eredu (B) nagusi da gutxi gorabehera 1980ko hamarraldian, baina nagusitasun hori aipaturiko aldizkarira —izkribu juridikoen *corpus* inportantea— eta hainbat erakunde nagusitara mugatzen da. Honekin ez dugu esan nahi lege-testu guztietan eredu hori nagusitzen denik, are gutxiago eredu hori monolitikoa denik. Izan ere, hurrengo puntuan azalduko dugun bezala, aro horretan sorkuntza eta esperimentazio linguistikoa ugaria da EHAA-n. Bestalde, eredu horrek baditu sustatzaileak eta jarraitzaileak aipaturiko aldizkaritik kanpo, bereziki EAEko administrazioako organo zentraletan. Hasierako garai haietakoa denez, aipagarri da EHAko lexikoaren berri sistematikoa ematen zuen hiztegi bat (Arabako Foru Aldundia, 1985) jadanik 1985ean argitaratu zela.

Beste ereduak (Ak), berriz, ez du sustengua ematen dion argitalpen nagusi bat, eta hainbat argitalpenetan azpi-ereduetan sakabanatuta agertzen da, egileak batez ere udaletako eta diputazioetako itzultzaileak direlarik. Beste aldetik, esan daiteke neurri batean eredu horren bidetik doala UZEIren hiztegietan⁷ eta beste lan juridiko-administratiboetan ageri dena.

1989an, HAE/IVAPek antolatuta, Administrazio Hizkera eta Terminologiako Jardunaldiak egin ziren. Bertan entzun ahal izan ziren garai hartako iritzi-emailerik ospetsuenak, HAEkoak, UZEIkoak, unibertsitateetakoak, funtzionarioak, abokatuak, notarioak, Euskaltzaindiakoak, terminologoak, itzultzaileak... Egoeraren erretratoa eta diagnostikoa, eta arazo askoren deskribapena, egin zen; eta, ardura zute-

5. Ikus OREGI ARANBURU, Josu. *Arduralaritza-euskararen baldintzak*, HAE/IVAP, 1984.

6. Aurreko artikuluan bertan azaltzen du Oregi jaunak bere zuzenbide hau.

7. *Administrazioa eta Zirkulazioa. Hiztegia*, 1983 eta *Zuzenbidea Hiztegia*, 1985.

nen aldetik, konponbidea bilatzeko konpromiso-ko hitzak ere entzun ziren⁸. Handik aurrera, nahiz eta oso astiro, jatorri bateko edo besteko testu juridiko-administratiboen arteko desberdintasunak gutxitzen hasten dira.

1990eko hamarraldian, B eredua deitu dugunaren ezaugarri nabarmenenak desagertu egiten dira, eta, muturreko ereduak ezkutaturik, testu juridiko gehienek elkarren antza handiagoa hartzen dute.

Neurri handi batean, eztabaidak lexikoaren ingurukoak direnez, 1990eko urteetan plazaratzen diren lexikografia orokorreko lanek (OEH, LEF batzordearenak, Euskal Hiztegia, besteak beste) hainbat eztabaidaren bukaera dakarte, nahiz eta, gaurko egunean ere, testu juridikoen ekoizle-taldeek (HAEE/IVAPek, administrazioetako itzultzaileek, EHUKo edo Deustuko irakasleek) neurri batean beren bide propioak urratzen jarraitu.

5. Lege-testuetako terminologiaren arazo bereziak

Testu juridikoa, hizkera juridikoa, alderdi askoko zerbait da eta oso luze joko luke hasiera-ko uneari buruz egin dugun deskribapen-saiakera hurrengo une guztietara hedatzea, eta eboluzioaren inflexio-guneak zehazten saiatzea.

Tesian bereziki landutako alderdia terminologia izan denez, eta zalantzarik gabe gure hizkera juridikoaren puntu garrantzitsuenetakoa denez, hurrengo lerroetan, hainbat adibideren laguntzarekin, urte horietako terminologiari buruzko zertzelak

da batzuen bidez, halako marrazki xume bat egiten saiatuko naiz. Tesian aztertu nuen *corpus*-a, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko aldizkari ofizialetako legeria, izango dut hemen ere azterkitzen eta adibide-iturri.

5.1. Adibide batzuk

Ondoko adibideetan ikus daiteke EKNAOn argitaratutako lege eta dekretuetan, eta EHAAko legeetan, 1980tik 1997ra bitartean, zein izan diren hainbat termino juridikoren euskal baliokideak; hau da, euskal testu itzulian, erdarazko terminoaren esanahia adierazteko erabiltzen diren euskal baliabideak: hitz soilak, eratorriak, elkartuak, sintagmak edo bestelako hitz-andanak.

Desberdinak bakarrik jaso ditugularik, ezin dugu baieztatu forma baten erabilera zenbat aldiz errepikatzen den, edo noiz arte erabiltzen den, edo noiz desagertzen den, baina, normalean, lege-testu baten barruan koherentzia terminologikoari eutsi zaionez, gehienetan forma bakarraz edo antzekoaz erantzun izan zaio erdal termino bati, eta, hortaz, testu batean agertzen den forma nagusiki erabiltzen zena da. Uste dugu, hortaz, ondoko adibideek, ondoren iruzkinduko ditugun bezala, nahiko zehazki adierazten dituztela garai horietako terminologiaren ezaugarriak eta gorabeherak.

Lehen zutabearen legearen urtea ematen dugu, eta bigarreanean euskarazko testuetan agertzen diren baliokide desberdinak. Ikus daitekeen bezala, desberdintasun hori kasu batzuetan oso gauza txikia da: marrazkia erabiltzea edo ez izan daiteke.

acuerdo de suspensión

1979	baliogabetze akordio	1979	suspentsio akordio
1979	etendura erabaki	1990	indar-gabetzeko erabaki

administración institucional

1978	Administrazio Instituzional	1988	Herri-Ardulararitza
1983	erakunde-ardulararitza	1989	Iraskunde-mailako Administrazio
1983	Erakundegoren mailako Ardulararitza	1990	agintaritza-alorreko Ardulararitza
1983	erakundegorenen ardulararitza	1991	Iraskunde-mailako Ardulararitza
1983	erakundegorenetakoa ihardutze-sail	1992	Administrazio instituzional
1983	erakundetzako herri-ardulararitza	1992	instituzio mailako Administrazio
1983	erakundegoren-ardulararitza	1992	erakunde-Administrazio
1988	Erakunde-mailako Ardulararitza	1994	erakunde-mailako administrazio
1988	Iraskunde-goren mailako Ardulararitza	1994	erakundeen administrazio
1988	Iraskundegoren-mailako Ardulararitza	1994	erakundeetako administrazio

8. Jardunaldi horietako ekarpenak irakur daitezke HAEE/IVAP (1989) liburuan.

anteproyecto de ley

1981	lege aurregitamu	1989	Lege-Egitasmotarako
1983	Legearen egitasmozako	1992	lege aurregitasmo
1983	Lege-egitamutarako	1994	legearen aurregitasmo
1983	legearen aintzin-egitasmo	1994	lege-aurregitasmo
1985	Lege-Aintzinegitasmo	1996	lege-egitasmoetarako
1985	Lege Egitasmo	1996	lege proiektu
1989	lege-aurreproiektu		

competencia exclusiva

1978	X-rako esku bakarrik eduki	1991	X-en ardurapean osorik jarria den aginpide
1982	bakarreango aginte	1993	aginpide oso
1982	bakarreango ahalmen	1994	bakarreko aginpide
1983	bakarreango agintepide	1994	eskuduntza eskusibo
1983	bakarreango agintza	1994	beste inorena ez den aginpide
1990	bakarreango aginpide	1994	X-k duen, eta ez beste inork, aginpidea
1991	erabateko aginpide		

convenio colectivo

1980	konbenio kolektibo	1985	bateango lan-Itune
1981	bateango itunebide	1989	itune kolektibo
1981	bateango Itune	1992	hitzarmen kolektibo
1981	bateango lan-hitzarmen	1993	lan-itun

derecho de tanteo

1978	tanteo-eskubide	1989	prezio berean jabetzeko eskubide
1982	prezio berdinean beretzakotzeko eskubide	1990	haztaketarako eskubide
1988	haztatze-eskubide	1994	tanteo-eskubide
1988	haztaketa-eskubide		

(bien de) dominio público

1980	domeinu publikozko ondasun	1983	herri-baliapide
1980	ondasun publiko	1988	herri-alor
1982	herri-jabetzapeko ogasun	1990	herri-jabetza
1983	herri-jabetzapeko	1990	herri-jaugope
1983	herri-jaugopeko ogasun	1994	herriaren jabetza
1983	herri jaugopeko ogasun	1996	jabari publiko
1983	herri-mende		

fundación

1982	iraskunde	1994	fundazio
1994	gizatalde		

impuesto sobre la renta de las personas físicas

1981	norbanakoen urteirabaziekiko zergapide	1985	Norbanakoen Urte-irabaziekiko Zerga
1983	Norbanakoen Urteko Irabaziegatikako zerga	1989	Norbanakoen Urteko Irabaziekiko Zerga
1983	Norbanakoen Urte-Irabaziegatikako Zergapide	1989	Norbanakoen Urteko Irabaziei buruzko Zerga

inscripción registral

1980	erregistroan sartze	1989	erroldean eraso
1982	erroldeategian erasotze	1991	erroldean eroldaturik egote
1982	erroldean erasotze	1992	lerrokattegian agertuerazi
1983	erroldean sartu	1994	erregistroan sartu
1983	erroldeeratze	1994	erregistroan izena eman
1988	erroldeapen	1994	Erregistroan jaso
1990	erroldaritzan izena emate	1994	berri izan
		1994	jakinarazi

interés general

1982	orotariko interes	1989	interes orokor
1982	herri-zudu	1989	guztien interes
1983	herrizudu	1990	guztien on
1985	guztien zudu		

notificación

1979	notifikapen	1990	jakinarazpen
1981	jakinarazi	1990	gaztigua egin
1981	adierazpen	1990	jakin-arazpen
1982	berri eman	1992	jakinerazpena eman
1982	adierazi	1992	jakinerazpena egite
1982	deia egin	1994	berri izan
1983	adierazpena egin	1994	jakinarazi
1986	jakinarazte		

personas físicas y jurídicas

1981	norbanakoak nahiz legenortasundunak	1991	pertsona fisiko edo juridikoak
1982	Norbanakoak nahiz legezko nortasundunak	1992	gizabanako eta erakundeak
1982	norbanako eta/edo lege-nortasundunak	1994	pertsona fisiko edo zuzenbidezko pertsonak
1985	Berenezko nahiz lege-nortasundun	1994	pertsona eta lege-pertsonak
1988	gizabanako nahiz lege-nortasundun		

prescripción

1983	aldiaz galtze	1990	aldiaz indargabetze
1983	indargabetzeratze	1992	baliorik gabe uzteko aldi
1983	Indarra galtze	1992	iraungipen
1983	indargabetu	1992	iraungitze
1988	zuriztapen	1994	Indargaltze
1988	zuriztapen edo ezabapen	1994	preskripzio
1989	indar-aldi	1995	preskribitu
1989	indargabetuta geratze		

procedimiento administrativo

1981	Arduralaritzabide	1990	administrazio-ihardunbide
1983	Arduralaritzaz-bide	1989	Arduralaritzaz-Auzipide
1985	arduralaritzazko bide	1991	Administrazioaren Jardunbide
1986	administraziozko bide	1992	Administrazioaren ihardunbide
1986	arduralaritzaz-izapide	1994	prozedura administratibo
1988	arduralaritzaz-arau	1996	Administrazio Jardunbide
1990	administrazio-bide	1996	administrazio-prozedura
1990	Administraritzaz-Bide		

5.2. Iruzkinak

1. Tesian aztertutako terminoetan ia beti gertatzen da adibide hauetan bezala: erdal termino bakoitzeko euskarazko N baliokide daude; batzuetan bat edo bi, beste batzuetan anitz, 21 gehienez. *Corpus*-aren hustuketa egin ondoren lortu ditugun kopuruek (880 espainierazko termino eta 2.858 euskarazko segmentu baliokide) erakusten dute erdarazko termino bakoitzeko 3,24 euskal baliokide daudela *corpus*-ean, batez beste. Zenbaki horiek xehetuaz, ikusi ahal izan dugu gaztelaniazko terminoen herenak baliokide bakarra duela, eta – direla baliokide bat, bi edo hiru dutenak; beraz, laurden batek lau edo gehiago dituela; ez dira falta 16 baliokide dituztenak. Badirudi, gainera, euskal izendapen berriak sortzeko joera ez dela desagertzen azken aldian, forma berriak etengabe aurkitu baititugu *corpus*-ean.

Horrek adierazten du –betiere kontuan hartuaz *corpus*-a osotasunean hartzen dugula– ez dagoela hasieratik bukaerara finkatuta zein den adigai jakin bati (gaztelaniazko termino bati) dagoen euskal izendapena.

2. Hainbat kasutan, erdal termino juridiko finkatu baten ordainetan, euskal testuetan ez da termino-formadun zerbait agertzen, baizik eta haren esanahia itzulginguru batez, esaldi batez edo erlatibodun sintagma batez ematen da.

Horrelakoak ikus daitezke, esate baterako, erdarazko *competencia exclusiva* itzultzeko, horren esanahia gutxi gorabehera azaltzen duten esaldiak egiten direnean: *zerbaiterako esku bakarrik eduki*, *norbaiten ardurapean osorik jarria den aginpide*, edo *X-k duen*, eta *ez beste inork, aginpidea*. Antzekoak dira *derecho de tanteo* adiera euskaraz emateko, eskubide horren edukia deskribatzen saiatzen direnak: *prezio berdinean beretzakotzeko eskubide* edo *prezio berean jabetzeko eskubide*.

Itzultzailearen aldetik guztiz zilegi, eta maiz ezinbestekoa, den jokabide horrek, terminologia finkaturik ez edukitzea, eta itzultzaileak terminologia sortzeko lana bere bizkar gainean hartu behar izatea adierazten du.

3. Hainbatetan ageri da erdal terminoa itzultzeko era onargarria aurkitu dela, itxuraz, bederen, hasierako itzulpen batean, baina ondorengo itzulpenetan, hura berrerabili ordeztuz, beste mila era desberdin ageri dira, unean uneko itzultzaileak besteek egindakoaren berri ez baleuka, edo haren balioa egiaztatzeko modurik ez balu bezala.

Kasuz kasu aztertu beharko lirateke arrazoa zein den jakiteko, baina bada, ziurrenik, guztien azpian egitate bat: testu horien balio komunikatiboa, ulergarritasuna, ez zen egiaztatzen,

zeren eta testu horiek betiere modu elebidunean argitaratzen zirenez, eta erdal testuaren aurrez aurre gainera, azken hau izaten zen benetan irakurri eta erabilitakoa. Itzultzaileak ez zekien nolako harrera praktikoa zuen berak egindako itzulpenak, ez eta berak moldatutako terminoak.

Horrek bidea eman zuen testu juridikoen itzulpengintza, eta horren barruan terminogintza, neurri batean esperimenezko alor moduan hainbat urtetan baliatzeko.

4. Adibideetako urteek erakusten dutenez, jauzirik handiena, hasierako EKNAOren (1978-1980) eta berehalako EHAaren artean (1980-1989) agertzen da. Aldiz, 1990eko hamarraldian hainbatetan hasierako hitzak eta baliabideak berreskuratzen direla ageri da. Horrela, erdal *administración institucional*-en baliokide ugarien artean, lehen agerraldian (1978) *administrazio instituzional* dugu, baina ondorengoetan *administrazio* hitza desagertu egiten da, *arduralaritza*-ren mesedetan, eta *institucional*-en esanahia hainbat modu desberdinetan adierazten saiatzen dira. Baina 1992ko lege batean, berriro 1978ko forma bera ageri da, eta ondoren, *arduralaritza*-k berriro tokia uzten dio *administrazio*-ri. Antzeko gorabeherak daude, esate baterako, *inscripción registral*-en baliokideetan, zeinetan 1980ko *erregistro* desagertu egiten den 1994an berriro plazaratzeko, edo *derecho de tanteo*, 1978an *tanteo eskubide* itzuli zena, hainbat esamoldetatik pasa ondoren, 1994an berriro *tanteo eskubide*-ra etorrira ikusten duguna.

5. Lexikoa eratzeari buruzko joera aski desberdinak nabarmentzen dira. Alde batetik, maileguak onartzeari edo baztertzeari dagokionez. Bigarren puntuari iruzkindutako testuetan ikusten genituen jokabideak ia sistematikoki agertzen dira termino horien baliokideetan: 1980 arte mailegu ugari dago:

akordio, suspentsio, administrazio, instituzional, konbenio, kolektibo, tanteo, domeinu, publiko, erregistro, notifikapen

Baina, hurrengo urteetan, ia beti maileguzko hitz horien tokian “jatorrizko” euskal hitzak agertzen zaizkigu:

arduralaritza, erakundezko, bateango, haztatze, herri-, errolda

eta berriro, hainbatetan, 1990etik aurrera, maileguzkoa haietara jotzen da:

administrazio, instituzional, kolektibo, tanteo, publiko, erregistro

6. Terminoak sortzeko erabilitako baliabideak eta estrategiak era askotakoak izan dira, ikusi dugun bezala. Denetan errazena (itzultzailearen zat), noski, ikusi dugun mailegutza da.

Hainbatetan terminoa, hitz batekoa edo hainbatekoa, oso-osorik mailegatzen da; besteetan, berriz, maileguzko hitzaren itxurari ikuturaren bat egiten zaio, ez beti euskararen morfologi arauak jarraituz, 2. puntuaren ikusten genuen bezala.

acuerdo = erabaki
suspensión = etendura, baliogabetze
competencia = ahalmen, esku, aginte
convenio = itune, hitzarmen

Hainbat kasutan, aldeaz aurretik zegoen hitzen baten esanahia egokitu, "terminologizatu" egiten da, ondoko adibideetan bezala. Esanahiaren egokitze-bidearen mugak ez dira beti oso argiak, batzuetan ikus daitekeenez:

tanteo = haztatze, haztaketa
público = herri-
registro = errolda

Beste askotan, B ereduaren deskribapenean irakurri dugun bezala, euskararen baliabide morfologiko eta sintaktiko ugari erabiltzen dira:

administración = arduralaritza
prescripción = indargaltze
registro = lerrokategi
persona física = norbanako
colectivo = bateango
exclusivo = bakarreango
dominio público = herri-jabetzapeko, herri-jaurgopeko
institución = erakundegoren
institucional = erakundegoren mailako
anteproyecto = egitasmozakoa, aintzinegi
tasmo, egitasmotarako,
Competencia exclusiva = X-en ardura
pean osorik jarria den aginpide; X-k duen, eta ez beste inork, aginpide

6. 25 urte eta gero zertan gauden euskara juridikoari dagokionez

Azken puntu honek ez du izan nahi ikerkuntza-artikulu baten ondorioak zehatz-mehatz ematen dituen horietakoa, askoz informalago zerbait baizik. Informalago izateak ez du esan nahi hemen idatziko ditudanak burutazio hutsak direnik. Gehien-gehienak, tesiaren langintzan egiaztaurikoak dira, nahiz eta hainbat kasutan nire balioespen subjektiboak ere paratu.

1. Historia guztian baino hobeto Hegoaldean

Euskarari buruz orokortasunean hau esatea arinkeria izango litzateke, nahiz eta, 2001eko Inkesta Soziolinguistikoaren emaitzek adierazten dutenez, "betiko" beheranzko joera zertxobait zuzendu den. Baina nire baieztapen hau euskara juridikoari huts-hutsean dagokio, eta, horrela

mugatuta, uste dut ukaezinekoea dela: euskarak inoiz baino presentzia zabalagoa eta sakonagoa dauka Zuzenbidean, eta inoiz baino testu juridiko gehiago eta teknikoki espezializatuagoak ekoizten dira. Nafarroarentzat ere, behar diren ñabardurekin, baliagarria da diagnostiko hau; ez ordea, Iparraldearentzat.

2. Irakaskuntza, ikerkuntza, hizkeraren beste agerpenak

Hizkera berezitu bati gagozkiolarik, esan daiteke orain (azken 10-12 urteotan) maila zientifikoko testu juridikoak izaten hasi direla: unibertsitateko eskuliburuak, ikerkuntza-artikuluak, idazten ari naizen *Eleria* aldizkari hau, hizkera berezi baten garapenerako ezinbesteko bermeak direlarik, berriak dira gure testu-jeneroaren historian eta hizkera honen garapen autonomoaren sustengua neurri batean.

3. Belaunaldi berrietan, hainbat legelarik eta herritarrek euskaraz erdaraz baino hobeto

Aldez aurretik inoiz ez gertaturiko fenomeno bat dugu orain: oso ugariak ez badira ere, juristen belaunaldi berrietan badaude euskaraz erdaraz bezain ongi edo hobeto moldatzen direnak testu juridikoak ekoizterakoan. Nire ustez, horrelako legelariak izatea eta beren lanbidea euskaraz garatzea ezinbesteko baldintza da fikziozko erabilera batetik irteten hasteko. Oharatarazi behar da, halere, norberak euskaraz erdaraz baino erraztasun handiagoa izateak ez duela esan nahi erdararen morrontzatik libre dagoenik, gure gizartearen kultura juridikoa erabat espainola izanik, ezagutzen diren hitzak, terminoak eta esateko moduak gartzelaniazkoak baitira.

4. Erabilera sinboliko hutsetik praktikora nekez

Maiz entzun dugun leloa da hizkera horrek ez diola inolako onurarik ekarri euskararen garapenera, horretan sartutako indarrak eta diruak beste zerbaitetan erabili izan balira, askoz probetxuegi gehiago atera izango zitzaioela. Eta aitortu behar da azken mendeko hizkera juridikoa, neurri handi batean, fikziozkoa izan dela, benetako erabilzailerik ez zuelako, esan nahi baita, euskal testu juridikoa arrazoi praktikoengatik (hobeto ulertzea, errazago maneiatzea...) aukeratzen zuenik ez zegoelako.

Nire ustez, testu askoren fikziozkotasunak ahalbideratu du inork (egileak kenduta?) ulertzen ez zituen testuak euskarazko arauak balira bezala hortik zehar ibili izana, eta erdara juridiko traketsenaren ispilu ziren testuak ere jasan izana. Baina, halaz eta guztiz ere, eztabaida horrek ez du zentzurik: hizkuntzaren erabilerak gorabehera politiko-sozial askoren mende daude, eta bereziki zuzenbidekoarena: legeak euskaraz plazaratu behar ziren ofizialtasunak horrela eskatzen zuelako, eta kitto.

Arazoa da asmatu ote den hizkuntzaz kanpotik ezarritako behar hori ongi baliatzen euskara bera garatzeko, eta euskaldunen gaitasuna garatzeko, erabilera sinbolikoki praktikora igarotzeko.

Nire ustez, 25 urte geroago esan dezakegu ez dela bete-betean asmatu, baina aurrerapausoak egin dira. Izan ere, badaude, lehen aldiz historian, testu administratibo-juridikoen irakurle-hartzaileak euskaraz hobeto ulertzen dituztenak. Euskal testuak gero eta gehiago erabiltzen dira, eta erabili ere arrazoi praktikoengatik, baina oraindik ere, hein handian, erabilera sinbolikoa da arlo eta esparru jakin batzuetatik at. Kulturarekin eta hezkuntzarekin loturiko jarduerak juridiko-administratiboetan, esate baterako, bada-go halako normaltasun maila bat, esan nahi baita, euskara bilakatu dela lan-hizkuntza: arauen euskal bertsioa erabiltzen da, txostenak hizkuntza horretan egiten dira, eta erabakiak ere.

Baina esandako eremuetatik eta eskualde oso euskaldunetako udal jakin batzuetatik kanpo, eta, oro har, justizia alorrean edo produkzioarekin lotutako eremuetan, erabiltzen den apurra oraindik ere balio sinbolikoa du, salbuespenak salbuespen.

5. Alor batzuetako eta besteetako garapen desorekatua

Hizkera berezi baten garapena guztiz dago erabilerarekin lotua; zuzenbide-hizkerak hainbat azpi-hizkera ditu, jakina denez, bakoitza bere terminologia eta diskurtso propioarekin. Gure egungo egoeraren ezaugarri larri bat da hizkera horien garapenen arteko desoreka: badira batzuk, administrazio zibilari loturikoak bezala, aski garatuak eta landuak daudenak, eta beste batzuk, justizia-administrazioari edo merkataritzari loturikoak kasu, oraindik oso gutxi landu direnak. Desoreka horiek gainditu ezean, ezin esan izango dugu hizkera juridikoa osasuntsu dabilenik.

Eta desorekaz ari garela, nabarmena da gure gizartearen bizitza juridikoa guztiz baldintzatzen duten hainbat testu juridiko (estatuko legeria nagusiaz ari naiz) oraindik euskaratu gabe egoitea. Doi-doi azken urte parean kaleratu da Zigor Kodea izenekoa, baina oraindik ere Espainiako Konstituzioaren garai bateko itzulpen ofizial barrengarria (negargarria ez esateagatik) besterik ez da kaleratu, eta antzera Kode Zibilari eta beste kode handiei dagokienez.

6. Itzulpenak betiere gehiegi baldintzatzen gaitu

Hasieran testu juridiko guztiak itzuliak baziren, egoera zerbait hobetu da, baina ez errotik.

Oraindik ere, testu gehienak gaztelaniaz sortu eta euskarara itzuliak dira.

Udal (txiki-ertain) batzuk, eta beste administrazio batzuetako euskara-zerbitzuak izan ezean, euskara edo ez da lan-hizkuntza edo ez da beregainki erabiltzen: testu bat erdaraz landu eta prestatu ondoren, itzultzaileari ematen zaio, euskaraz ipini dezan. Gainera, kaleratzeko orduan, agiri berean bi hizkuntzak batera agertzen dira –betiere Nafarroakoa salbuespen⁹–; horrela, euskal testuen erabilera, ulergarritasuna eta balio praktikoa neurgaitza gertatzen da.

Itzulpenaren morrontzatik ihes egiteko bide bakarra euskara lan-hizkuntza bihurtzea dela aspaldi dakigun gauza bada ere, urrats txikiak egin dira bide horretan. Oso urruti gaude, esate baterako, Kanadako zenbait erakunde elebidunetan morrontza linguistikoaren arazoa saihesteko egiten diren saioetatik, esate baterako, arau-testuak hizkuntza batean (betiko hizkuntza nagusian, noski) idatzi eta ondoren beste hizkuntzara itzuli dezan norbaiti eman orde, bi hizkuntzetako legegari-talde batek batera egin bi hizkuntzetako lehen idazkerak, bertsio bat ez dadin bestearen itzulpena izan.

Gogora dezagun, hala ere, urrats gehiago ez egitea ez dela soilik agintarien errua: partikularren artean, enpresetan, merkataritzan, eskriturak egiterakoan egiten den euskara apurra ia beti itzulpenaren emaitza izaten baita. Badaude salbuespen eredugarriak, baina horixe dira: salbuespenak.

7. Ereduei kontrajarriak gaindituta, baina batasuna urruti

Hasiera batean mundu juridikoan ageri ziren eredu guztiz kontrajarriak ez ditugu oraingo testuetan aurkitzen: batasun maila askoz handiagoa da, zalantzarik gabe, baina oraindik ere kasu askotan, jatorria jakin gabe igar daiteke non egin den. Oraindik ere, zuzenbide-testuetan “eskolak” gehiegi nabarmentzen dira, talde bakoitzak bere “eredutxoari” eutsi nahi balio bezala.

Terminologiari dagokionez, *Euskalterm* bilakatu da guztien datu-base nagusi, baina, alde batetik, ez die gaurko behar guztiei erantzuten, eta, bestetik, kontsulta-leku ezaguna bada ere, ez du oraindik eskuratu, hainbat arrazoiengatik, beharko litzatekeen *auctoritas*-a.

Zalantzetan murgilduta lan egin behar du betiere euskal testu juridikoen ekoizle, itzultzaile nahiz sortzaileak.

9. Nafarroan ez dago izen eta hizkuntza biko aldizkari ofizial bat, baizik eta *Boletín Oficial de Navarra* gaztelaniaz eta *Nafarroako Aldizkari Ofiziala* euskaraz.

8. Legelariena da eginkizuna

Zuzenbideko hizkerak ez du sendabide berezirik. Bere gaitz guztiak erabilera ezaren ondorio direnez, benetako erabilera zabaletik bakarrik etor daiteke osabidea. Euskal legelariak benetan eta praktikan euskara erabiltzen badute, ulergarritasuna, segurtasun juridikoa, terminologia-batasuna etorriko dira, edo etor daitezke; bestela, ez.

Gorago esaten nuen legelarien hizkuntza-gaitasuna hobetu egin dela. Egia da, baina ahalegin handia egin behar da bide horretatik. Hizkera berezien sortzaileak profesionalak dira; kanpotik, hizkuntzalariek, hizkuntzaren teknikariek lagundu dezakete, baina legelariak huts egiten badute, azken horiek ezingo dute ezer konpondu. Premiazko lana da eragile juridikoen euskara-gaitasuna emendatzea. Beste unibertsitate batzuetan –atzerrian, noski–, Zuzenbidearen hizkera irakasgai akademiko ezinbestekoa da, eta hizkera juridikoaren inguruko ikerlerroak oso garatuta daude. Itzulpengintza juridikoa gai “nazional” bat da Quebecen eta Kanadako beste probintzietan. Hemen ere izan beharko luke.

Legelari euskaldunek bereganatu behar dute ideia hau: ez dute urte askotan hizkera “normal bat” aurkituko, erdaraz ari direnak bezala, alegia. Euskaraz aritu nahi duenak ez dauka aukerarik erabiltzaile soil, jasotzen duena erreproduzitzen dabilena, izateko.

Testu juridikoen ekoizlearen eginkizuna izango da aukeratzea, terminologia fintzea, etengabe sortuz eta aldatuz doana jarraitzea. Bere egitekoa izango da ohikoa den hizkeran (erdarazkoan) zer den terminologikoa eta zer ez bereiztea; ikasi beharko du zuzenbide-hizkeraren barneko azpi-hizkerak menderatzen, eta, alor guztietan egiten den bezala, testu-mota bakoitzaren araberrako hizkuntza maila edo erregistro desberdinak erabiltzen.

Lan-tresna hizkuntza duten lanbide horietan ez da nahikoa Euskaltzaindiaren Arauak ezagutzea; datu-base berezituak erabiltzen eta hornitzen trebe izan behar du, eta hori guztia egiten duen bitartean, etengabeko harreman-sareak landu beharko ditu mundu juridiko euskalduneko beste eragile eta kideekin hizkeraren batasuna hobetze aldera.

Ez da lantegi makala datozen 25 urteetarako.

Bibliografia

- ARABAKO FORU ALDUNDIA. *Agintaritza-aldizkarietatikako hitz-bilduma/Vocabulario de los Boletines Oficiales*. Vitoria/Gasteiz: Arabako Foru Aldundia, 1985.
- BERASATEGI, Jose Inazio. “La traducción jurídico-administrativa en el País Vasco”, In: *Revista de Lengua i Dret*, 13, 1989; 29-45. orr.
- ELOSEGI ALDASORO, Antton. *Zuzenbideko euskal hizkera berezia. Lege-corpus itzuli bateko terminologiaren azterketa linguistikoa eta terminologikoa*. Doktore-tesia, Miren Azkarate Villar Doktorearen zuzendaritzapean. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen zerbitzua, 2002.
- HAEE/IVAP. *Euskara eta Administrazioari Buruzko 1. Ihardunaldiak*. Oñati: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 1984.
- HAEE/IVAP. *Administrazioa hizkera eta terminologiaren jardunaldiak*. Oñati: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 1989.
- SARRIEGI ESKISABEL, Andoni. “Administrazioa eta euskara: itzultzaileak eta arduradunak”, In: *Senez. Itzulpen eta terminologiazko aldizkaria*, 3, 1985; 11-29. orr.
- TREBIÑO BARRUETABEÑA, Imanol. *Administrazio Zibileko testu historikoak*. Vitoria/Gasteiz: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2001.